

## Andoingo Udalak eta SALKINek lankidetzaz estutu dute tokiko merkataritza eta ostalaritza elkarrekin biziberritzen jarraitzeko

- **Udalak 118.00 euroko diru-laguntza emango du SALKIN-en sustapen eta dinamizazio jardueretarako.**
- **Herrian kontsumoa sustatzeko 'HAN EDO HEMEN EROSI ANDOAINEN' bonu kanpaina ekainean itzuliko da.**

Andoingo Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak eta SALKIN merkataritza eta ostalaritza elkarteak lankidetzaz hitzarmen berri bat dute udalerriko merkataritza eta ostalaritza suspertzeko. **Mari Jose Izagirre** arloko zinegotziak eta **Maite Ramos** SALKINeko presidentek dokumentu berria sinatu dute, azken urteetan sustatutako jarduerak biziarri jarraipena eta estaldura emateko helburua duena. Horrekin lotuta, Izagirrek uste du "garai zailetan merkataritza eta ostalaritza babesteko eta laguntzeko modu ezin hobea" dela hau. Erantsi duenez, "pandemia lasaitasun apur bat ematen ari zen une hauetan, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak eragin zuzena" izan du, adibidez, "prezioen eta energiaren igoerarekin edo hornidurarik ezarekin". Zinegotziak tokikoa babesten jarraitzearen aldeko apustua egin du, "merkataritzak eta ostalaritzak enplegua eta jarduerak ekonomikoa sortzeaz gain, herriari bizitza ematen baitiote".

Zinegotziaren beraren hitzetan, koronabirusaren osasun-krisiak areagotu egin ditu merkataritzaren, ostalaritzaren eta tokiko zerbitzuen sektorearen biziraupenerako zailtasunak, eta testuinguru horretan, Udalak eta SALKINek beharrezkotzat jo dute saltoki txikiak eta ostalaritza babestea eta indartzea dinamizazio-, komunikazio- eta sentsibilizazio-jardueren bidez, krisi-egoera arintzen laguntzeko. Hitzarmen honen bidez, Udalaren beraren eta elkartearen arteko harremanak egonkorragoak izatea bermatzen da, eta SALKINek bultzatzen dituen ekitaldiekin edo jai- edo kirol-programekin koordinatuta garatzen dituen jarduerak indartuko dira. Lankidetzaz hitzarmen horri esker, **Udalak 118.000 euroko diru-laguntza emango dio SALKINi urtean zehar antolatzen dituen ekintzentzako eta tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea helburu duten kanpainetarako**, horrela elkarteak indartuz.

Aurten hitzarmenak hiru ekimen lehenetsiko ditu zehazki. Lehenengoa, andoaindarren artean harrera bikaina duena: *HAN EDO HEMEN*, *EROSI ANDOAINEN* ekimena. Bonuen bi kanpaina egingo dira 2022an (100.000 euroko zenbatekoarekin). Lehenengo kanpaina ekain osoan zehar egingo da, eta 50 euroko balioa duten 2.000 bonu banatuko dira SALKINen lokalean, 25 euroren truke. Bigarren kanpaina abenduan egingo da, hain zuzen ere, Gabonetan tokiko kontsumoa sustatzeko, 50 euroko balioa duten beste 2.000 bonurekin, eta Udalak horien % 50 ere finantzatuko du. 2021ean egindako balorazio positiboaren ondoren, Udalak herriko saltoki eta ostalaritzarekin hartutako konpromisoari eusten dio, Andoaineko "funtsezkoa" den sektore bati ematen zaion laguntza hau indartuz. Mari Jose Izagirre zinegotziak azaldu duenez, ekimenak 100.000 euroko zuzeneko gastua aktibatuko du herriko denda, taberna eta jatetxeetan kontsumoaren bidez, eta SALKIN elkarteak dinamizatzen lagunduko du.

Bigarren ekimen lerroa merkataritza-dinamizazioko, komunikazioko eta sentsibilizazioko jarduerak, prestakuntza-ekintzak eta jardunaldiak egitea da. Horretarako 23.197,91 euro erabiliko dira. Azkenik, hirugarren lehentasuneko ekintza gisa, SALKIN elkartearen zeregina indartuko da, eta elkartearen gastu orokorrak bere gain hartuko dira, besteak beste lokalaren alokairua eta pertsonal gastuei dagozkien 24.258 euro.